

## ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA

### Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

#### Zerga Premiatusuneko Araugintza Dekretuak

7.714

**3/2000 ZERGA PREMIATUSUNEKO ARAUGINTZA DEKRETUA, abenduaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bitartez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren katastroko balioak eguneratzen dira, bai landatar ondasun higiezinatarako, bai hiritarretarako.**

Azaroaren 21eko 895/2000 Erabakiaz, Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak zenbait zerga xedapen aldatzeko foru arauaren proiektua onartu zuen.

Foru arauaren proiektu horretan jasotako aldaketan artean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren katastroko balioak eguneratzearena dago. Eguneratzea katastroko balio horiei 1,036ko koefizientea aplikatuz egitea aurreikusi zen.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga zergaldiko lehenengo egunean —hau da, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean— sortzen dela kontuan hartuta, funtsezkoa da data horretarako onartuta izatea urte horretan erabili beharreko katastroko balioak.

Horregatik, eta Arabako udalek kalterik izan ez dezaten, egoki da, 2001eko urtarrilaren 1a baino lehen, katastroko balioak eguneratzea. Eguneratze hori da, horrenbestez, xedapen orokor honen xedea.

Ikusita Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostenak.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur eztabaidatuta, foru arauak (1981eko maiatzaren 31ko Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 13. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko 52/1992 Foru Arauak, abenduaren 18koak) Foru Aldundiari ematen dizkioten aginpideak erabiliz, premiazko arrazoiengatik,

#### XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga: katastroko balioak eguneratzea.**

**Lehenengoa:** Landatar nahiz hiritar ondasun higiezinatarako, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako katastroko balioak eguneratuta egongo dira, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera, 1,036ko koefizientea aplikatuz. Koefiziente hori honela aplikatuko da:

a) Katastroko datuen arabera balioztatutako ondasun higiezinak direnean, ondasun horiei 2000. urterako eman zaien balioaren gainean aplikatuko da.

Hartara, koefizientea luraren balioari eta eraikuntzaren balioari aplikatuko zaie.

b) Katastroko datuen arabera, aldaketa fisikoak edo juridikoak izan dituzten ondasun higiezinak direnean, baina aldaketa horiek ez badute inolako eraginik izan, koefizientea ondasun higiezin horien balioari aplikatuko zaio, betiere egoera berria kontuan hartuta. Orobat, udalerriko beste ondasun higiezinatarako katastroko balioak finkatzeko erabili ziren moduluak aplikatuko dira. Kasu hauetan ere, artikulu honetako aurreko letrako bigarren paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da.

c) Eguneratze koefiziente hori ez zaie ondorengo hiritar ondasun higieziari aplikatuko: 2000. urtean onartutako balio ponentziak aplikatuta ateratako katastroko balioak dituzten hiritar ondasun higieziari.

**Bigarrena:** Aurreko lehenengo idatz zatian ezarritakoa aplikatzeko, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauko (uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua) lehen xedapen iragankorrean ezarritakoa hartuko da kontuan, dagozkion neurri eta kasuetan.

### Disposiciones y Resoluciones Administrativas

#### Decretos Normativos de Urgencia Fiscal

7.714

**DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 3/2000, del Consejo de Diputados de 5 de diciembre, que actualiza los valores catastrales, tanto de naturaleza rústica como de naturaleza urbana, del impuesto sobre Bienes Inmuebles.**

Mediante Acuerdo 895/2000, de 21 de noviembre, el Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava aprobó el Proyecto de Norma Foral por el que se modifican determinadas disposiciones tributarias.

Entre las modificaciones contenidas en el citado proyecto de Norma Foral se encuentra la relacionada con la actualización de los valores catastrales del Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Esta actualización se llevaría a cabo mediante la aplicación, a los referidos valores catastrales, del coeficiente 1,036.

Teniendo en cuenta que el Impuesto sobre Bienes Inmuebles es un tributo que se devenga el primer día del período impositivo, esto es, el 1 de enero de cada año, es fundamental que a dicha fecha se haya procedido a aprobar la actualización de los valores catastrales que van a operar en dicho año.

A estos efectos, y a fin de evitar perjuicios a los municipios alaveses, procede establecer, antes del 1 de enero de 2001, la actualización de los valores catastrales. Esta actualización es el objetivo de la presente disposición general.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

A propuesta del Diputado Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 13 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, de 31 de mayo de 1981, y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia.

#### DISPONGO:

**Artículo Único.- Impuesto sobre Bienes Inmuebles: actualización de los valores catastrales.**

**Primero.-** Con efectos de 1 de enero del año 2001, se actualizarán todos los valores catastrales del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, tanto de naturaleza rústica como de naturaleza urbana, mediante la aplicación del coeficiente del 1,036. Este coeficiente se aplicará en los siguientes términos:

a) Cuando se trate de bienes inmuebles valorados conforme a los datos obrantes en el catastro, se aplicará sobre el valor asignado a dichos bienes para el año 2000.

A este respecto el citado coeficiente se aplicará sobre el valor del suelo y sobre el valor de las construcciones.

b) Cuando se trate de inmuebles que hubieran sufrido alteraciones de orden físico o jurídico conforme a los datos obrantes en el Catastro, sin que dichas variaciones hubieran tenido efectividad, el mencionado coeficiente se aplicará sobre el valor asignado a tales inmuebles, en virtud de las nuevas circunstancias, con aplicación de los módulos que hubieran servido de base para la fijación de los valores catastrales del resto de los bienes inmuebles del municipio. A estos supuestos también se aplicará lo establecido en el párrafo segundo de la letra anterior de este artículo.

c) Quedan excluidos de la aplicación de este coeficiente de actualización los bienes inmuebles urbanos cuyos valores catastrales se obtengan de la aplicación de las Ponencias de Valores aprobadas durante el año 2000.

**Segundo.-** A efectos de aplicar lo dispuesto en el apartado primero anterior, se tendrá en cuenta, en la medida y supuestos procedentes, lo establecido en la Disposición Transitoria Primera de la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa:** Zerga premiatasuneko araugintza dekretu hone-tan xedatutakoa, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

**Bigarrena:** Arabako Foru Aldundiari aginpidea ematen zaio, zerga premiatasuneko araugintza dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan.

**Hirugarrena:** Zerga premiatasuneko araugintza dekretu hau Arabako Biltzar Nagusiei aurkeztuko zaie, baliozko edo baliogabe dezaitez, indarrean den araudiari jarraikiz.

Vitoria/Gasteizen, 2000ko abenduaren 5ean.- Diputatu nagusia, RAMON RABANERA RIVACOB A.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

7.716

**955/2000 ERABAKIA, abenduaren 5eko Diputatuen Kontseilua-rena. Honen bidez, Arabako Toki erakundeentzako Lan eta Zerbitzuetako Foru Planeko 2000 programako laguntzen 2. emakida onartzen da.**

Apirilaren 24ko 14/1997 Foru Arauak Lan eta Zerbitzuetako Foru Plana arautzen du, bai eta Arabako Foru Aldundiak toki erakundeentako obra eta zerbitzuetan lankidetzan aritzeko dituen beste tresna batzuk ere.

Foru arau horretako II. tituluan, Lan eta Zerbitzuetako Foru Planari buruzko xedapenak azaltzen dira, eta laguntzak emateko izango diren arauak eta irizpideak onartzen. Titulu horretan, obrak honela sailkatzen dira: oinarritzko azpiegiturak; ekipamenduak; eta zerbitzuak.

Ekainaren 10eko 77/1999 zenbakiko Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuaren bidez, Lan eta Zerbitzuetako Foru Planeko eta Inbertsioetako Plan Bereziko 2000 programan jasotako laguntzak emateko behar diren oinarriak onartzen dira.

Behin horretarako deia egin eta toki erakundeek Lan eta Zerbitzuetako Foru Planeko diru laguntzak jasotzeko eskaerak igorri ondoren, 14/1997 Foru Arauko 15. artikuluan araututakoarekin bat, obra eta zerbitzuei buruzko xedapen proposamena prestatu zen. Proposamen horri buruz, arauzko txostena eman zuen Toki Administrazio eta Finantzarako Lurralde Kontseiluak.

Proposamen horretan Lan eta Zerbitzuetako Foru Planaren kargura eman beharreko laguntzak proposatu ziren, bai eta aurrekontuetako esleipen soberakinaren edo gehituaren kargura diruz lagun daitezkeen obrak adierazi ere.

Horregatik guztiatik, Foru eta Toki Administrazio eta Eskualde Garapenerako Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluan gaur eztabaidatuta,

## ERABAKI DUT:

1.- Eranskinean aipatzen diren Arabako toki erakundeek eman beharreko Lan eta Zerbitzuetako Foru Planeko 2000 programako laguntzen 2. emakida onartzea, adierazitako kontzeptu eta zenbatekoek.

2.- Diru laguntza horiek honela esleituko dira: 298.595.130 pezeta (1.794.592,87 euro) Arabako Foru Aldundiko 2000ko aurrekontuaren kargura (00.3.01 taldea, 10-2 lerroa), 6.565.795 pezeta (39.461,22 euro) 2001eko konpromiso kredituaren kargura (00.3.01 taldea, 10-2 lerroa), eta 23.859.268 pezeta (143.397,09 euro) Arabako Foru Aldundiko 2000ko aurrekontuaren kargura. Izan ere, Inbertsioetako Plan Berezian aurreikusitako esleipeneko dirua bukatu ez denez, apirilaren 24ko 14/1997 Foru Arauan xedatutakoarekin bat, gelditzen den soberakina Lan eta Zerbitzuetako Foru Planeko 2000 programaren bidez lagun daitezkeen azpiegitura obrak finantzatzeko erabiliko da.

3.- Foru arau horretako 11.2 artikulua aplikatu ondoren gelditzen diren soberakinak diruz lagundutako obretako ordainsariak, diru laguntza osagarriak eta Lan eta Zerbitzuetako Foru Planaren baitan sar daitezkeen premiazko beste obrak finantzatzeko erabil daitezke.

## DISPOSICIONES FINALES

**Primera.-** Lo dispuesto en el presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

**Segunda.-** Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal.

**Tercera.-** Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Alava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, 5 de diciembre de 2000.- El Diputado General, RAMON RABANERA RIVACOB A.- El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

7.716

**ACUERDO 955/2000, del Consejo de Diputados de 5 de diciembre, que aprueba la 2ª concesión de ayudas con cargo al Programa 2000 del Plan Foral de Obras y Servicios a Entidades Locales de Alava.**

La Norma Foral 14/1997, de 24 de Abril, regula el Plan Foral de Obras y Servicios y otros instrumentos de cooperación de la Diputación Foral de Alava a las obras y servicios de las Entidades Locales.

En el Título II se articulan las disposiciones relativas al Plan Foral de Obras y Servicios, determinando las normas y criterios que han de regir la concesión de los diferentes tipos de ayuda y se clasifican las obras en infraestructuras básicas, y equipamientos, y servicios.

Por Decreto Foral del Consejo de Diputados número 77/1999 de 10 de Junio, se aprobaron las bases para la concesión de las ayudas en el Programa 2000 del Plan Foral de Obras y Servicios y del Plan Especial de Inversiones.

Una vez realizada la oportuna convocatoria y remitidas las solicitudes de subvención por las Entidades Locales para su atención en el Plan Foral de Obras y Servicios, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 15 de la Norma Foral 14/1997, se elaboró la propuesta de resolución de las obras y servicios que fue sometida al informe preceptivo del Consejo Territorial de Administración Local y Finanzas.

En la citada propuesta se proponían las ayudas a conceder con cargo al Plan Foral de Obras y Servicios, incluyendo, además, obras susceptibles de subvención con cargo a la consignación presupuestaria sobrante o incorporada.

En su virtud a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Administración Foral y Local y Desarrollo Comarcal, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de la fecha,

## ACUERDO:

1º.- Aprobar la 2ª concesión de ayudas con cargo al Programa 2000 del Plan Foral de Obras y Servicios a las Entidades Locales de Alava que se relacionan en el Anexo y por los conceptos y cuantías que se señalan.

2º.- Dichas subvenciones se consignarán de la siguiente forma: 298.595.130 pesetas (1.794.592,87 euros) con cargo al Presupuesto de 2000 de la Excm. Diputación Foral de Alava (Agrupación 00.1.00, línea 10-30) , 6.565.795 pesetas (39.461,22 euros) con cargo al Crédito de Compromiso de 2001 (Agrupación 00.3.01, línea 10-2), y 23.859.268 pesetas (143.397,09 euros) con cargo al Presupuesto 2000 de la Excm. Diputación Foral de Alava, (Agrupación 00.1.00, línea 10-32), ya que al no agotar la consignación prevista en el Plan Especial de Inversiones, de conformidad con lo establecido en la Norma Foral 14/1997, de 24 de abril, el sobrante resultante se destinará a la financiación de obras de infraestructura básica atendibles en el programa 2000 del Plan Foral de Obras y Servicios.

3º.- Los sobrantes que resulten de la aplicación del artículo 11.2 de la citada Norma Foral podrán destinarse a la financiación de los honorarios de las obras subvencionadas, subvenciones complementarias y otras obras de urgencia acogibles en el Plan Foral de Obras y Servicios.